


dan—tz

WEAR





GURI BURUZ

Dan-tz laborategi eta proiektu edukiontzi bat da kultura- eta arte-eremuan non ardatz modura musika elektronikoa eta abanguardiakoa dituen. Proiektu ugari aurrera eramane dituenak, horien artean, Dantz Festival, Dantz Point, Dantz Home eta Dantz Academy daudelarik.

Hauen eskutik, musika elektronikoaren balioak kontuan dituen komunitate zein marka bat sortzeko nahiarekin. Jasangarritasuna, komunitatea, berrikuntza, genero berdintasuna, irekiera artistikoa... dira balio horietako batzuk.

DANTZ PROIEKTUA

Dantz proiektu aitzindaria da estatu mailan eta Euskal Herrian du jatorri.

Laborategi eta proiektu edukiontzi bat kultur- eta arte-eremuan, non ardatz modura musika elektronikoa eta abangardiakoa dituen. 2017az geroztik, nazioarteko 5 jaialdi eta 50 ekitaldi baina gehiago, Balenciaga Museoaren edota Txillida Lekuren moduko espazio enblematikoekin lan eginez, besteen artean. Euskadiko erakunde publiko guztiekin kolaboratzen du eta hainbat sariren irabazlea izan da, horien artean, eduki digitalen sortzaile onenarena, Dance TV-k (Holanda) emana.






DANTZ WEAR

Dantz-ek Emaús Fundazio Sozialaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailarekin lankidetzan, jantzi iraunkorren eta zirkularraren marka baten sorrera proposatzen du, bigarren eskuko jantzien “hakeoa”-ren bitartez aurrera eramana.

Jantzien eraldaketa honetan hainbat artistek, bigarren eskuko arropa lehen mailako materia moduan erabiliaz, jantzien pertsonalizazioa aurrera eramango dute, beti ere, dan—tz markaren balio eta identitatean inspiratuz. Horrela, parekotasunean jarriko dira musika elektronikoaren produkzio eta nahasketa prozesuarekin, jasangarritasunari eta sorkuntzan duten askatasunari balorea emanik.

dan—tz



PROZESUA

Proiektu hau sortzearen helburuetako bat denboran zehar irautea izan da, jarraian aipatutako prozesua jarraituz:

-Artista deialdia (disenatzaileak edo diziplina anitzeko artistak), bigarren eskuko arropak dan—tz markarekin hackeatzeko, markaren balioak eta izaera kontuan hartuz.

- Artistek beren portfolioen bidalketa aurrera eramane beharko dute modu librean (inolako gairik gabe), eta aurretik aipatutako prozesu kreatiboan parte hartzeko artisten aukeraketa bat aurrera eramango da, Sindesperdicio markarekin batera. Emaús Fundazio Sozialak bigarren eskuko arropa eskaintzen du eta Sindesperdicio-ren laguntzarekin artisten aukeraketa aurrera eramango da.

- Aukeratutako 10 artistak, bakoitzak 5 pieza edo look egingo dituzte, aurretik dan—tz eta Sindesperdicios markek aurretik aukeratutako materialak erabiliaz.

Denek jasoko dute nortasun-eskuliburu bat, bai eta dan—tz markaren balioei eta helburuei buruzko informazioa ere, inspiratzeko ahal dituzten jakintza gehienak eskuan eduki ahal izateko.

- 50 jantzi hauek ekitaldi batean edo gehiagotan aurkeztuak izango dira Emaús Fundazio Sozialaren gunetan, eta Sindesperdicio markaren osagarriekin kontatuko dute.

DANTZ WEAR

DEI ALDIA 2022:

PARTAIDEAK:

Artistak (disenatzaileak edo diziplina anitzeko artistak), ez du garrantzirik izango zein adin edo nazionalitate duten. Edonork aurkez dezake proposamena, beti ere Dantz-ek sorkuntza-fasean dituen balioak eta nortasuna kontuan hartzeko konpromisoa badute. Behin aukeratuak direnek, artisten balioei eta identitateari buruzko informazioa eskuragarri jarriko zaie.



HAUTAKETA

Hasiera batean, jantzien aurreaukeraketa eta iragazpena dan—tz eta Sindesperdicio markaren (Emaús Fundazio Sozialeko partaidea) esku egongo da. Ondoren, hautatuak izan diren artistek jantzi hauen artean erabiliko dituztenak aukeratu ditzaten beren sorkuntzetan erabili ahal izateko.

dan—tz





DEIALDIAREN GAIA:

Bigarren eskuko jantziak lehengai gisa hackeatzea edo kustomizatzea. Musika elektronikoaren munduak erakartzen dituen artistek balioa emango diete eta bigarren bizitza bat emateko jantziak erabiliko dira.

Artisten hautaketa erabakitzeke edo gauzatzeke garaian, sormena, kalitatea eta mezua baloratuko dira, baita jantziak diseinatzeko erabilitako prozesuak ere.

dan—tz



PROIEKTUAREN GARAPENA:

Portfolio bakar BAT aurkeztuko da, eta gutxienez honako hauek jaso behar-ko ditu. Portfolio horiek gai librekoak izango dira.

- Jantzien edo outfiten zirriborroak. Aurrealdea eta bizkarra irudikatze-ko hiru zirriborro. Teknika, gaia eta sortze-prozesua libreak dira.
- Diseinuen izena.
- Inspirazioaren arrazoia
- Artistak musika elektronikoaren munduarekin duen harremana azaltzen duen testu laburra.

Eskaera hau info@dantz.eu helbidera bidaliko da 2022ko apirilaren 6ra arte (barne).

- Artisten aukeraketa.

Martxoaren 23tik apirilaren 17 arte



- Hautatutako artisten aurkezpena.

Apirilak 17

- Jantzien pertsonalizazioa eta eraldaketa fasea.

Apirilaren 17tik maiatzaren 5era



- Dantz Wear 2022 kolekzioaren aurkezpena.

Maiatzak 14



LAN FINALISTAK:

Aukeratutako 10 artistak, bakoitzak 5 pieza edo look egingo dituzte, aurretik dan—tz eta Sindes-perdicios markak aurretik aukeratutako materialak erabiliz.

Denek jasoko dute nortasun-eskuliburu bat, bai eta dan—tz markaren balioei eta helburuei buruzko informazioa ere, inspiratzeko ahal dituzten jakintza gehienak eskuan eduki ahal izateko.

Musika eta moda jasagarria elkartzen dituen ekitaldi batean aurkeztuak izango dira.

dan—tz

INFORMAZIO GEHIGARRIA:

Salmenten %50a artistei zuzendua egongo da, bestetik, Dantz-ek antolatzen dituen ekitaldi kulturaletan berrinbertituko du. Modu honetan, eskuratutako guztiak gizartean eragina izango du ekonomia zirkularrean, kulturalean eta artistikoan.

Irabazleak Dantz Wear-en lehen edizioko partaide izango dira eta denboran zehar proiektuan mantentzeko aukera izango du.

Dantzekin lotura ona sortzen duten artistak baldin badaude, egingdako lana dela eta, edota bi aldeen balioei buruzko elkartzeagatik delarik, bigarren eskuko arropa modu horretan edo antzkoan merkaturatzeko prozesuarekin jarraitu ahal izango da etorkizunean. Emausek proiektuko laguntzaile gisa izango du ikusgarritasuna bi aldeen nahia baldin badago eta proiektuak aurrera jarraitzen badu. Halaber, arrakasta izanez gero, eredu hori estatuko eta nazioarteko beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera egongo da.



dan—tz

WEAR

